

- **Kultura:** Hastear da Gaztetxeako kultur hamabostaldia.
- **Zer berri:** Abenduak 17 "Batu sutondora!" jardunaldiak

soraluzeko  
hamabostekaria **255.** alea  
2011ko abenduaren 9an

# @ pil-pilean



**Berbalaguna:  
geratuko gara berba egiteko?**

Abenduak 17, zapatua  
10:30ean  
Herriko Antzokia

# BATU SUTONDORA!

Euskara Elkartetik Euskaldunon Elkartera



## Pil-Pileaneko DISEINU GRAFIKO ZERBITZUA



**ONARRIZKO PAPERDEGIA KARTELAK  
ALDIZKARI eta ESKUORRIAK**



**BINILOK  
ARGAZKIEN  
TRATAMENDUA  
LOGOTIPOAK**

Eskatu aurrekontua konpromezurik gabe [diseinua@pilpilean.com](mailto:diseinua@pilpilean.com) helbidean edo 943 75 13 04 telefonora deituta



ARITZ ARIZAGA



EGOITZ UNAMUNO

## AMAMA NAPARRUAKOAREN LOIBAK DURANGON

Kaixo Egoitz!

Zelan doiazik Gasteizko komerixak? Datorren hilera arte lasai hartu biharko dittuk, ezta? Bueno pasa dan zapatuan izan zuan Euskerian Eguna eta askok ospatu arren iñok etxaukaj jai, astearteko Konstituziño Egunan gehixenok daukagun moduan...

Bueno jai eta ez jai honek alde batera lagata, urte sasoi honetan tipikua izaten dan Durangoko ferixia be izan dok. Hori jente pilia eguana Durangoko Landako gunian. Euskal literaturak osasun ona daukan seinale batzuen ustetan, nik oster, etxuat hola ikusten kontua... Urtian behin izaten dok ferixia eta urtero salmentak gora egitten juek. Urtero liburu eta lan gehixago aurkezten dittuk, jente gehixago juaten dok ferixara eta diru gehixago gastatzen juek. Oin, eta urteko gañerako egunetan? Hor ezer gutxi mobitzen dok asuntua.

Idazliak beren lanak Durangora begira idazten jittuek, hartara han aurkeztu eta ondo saltzeko. Beste garaixetan liburu gutxi argitaratzen dittuk. Euskal literatura sistema abenduko lelengo astian inguruan bizi dok, eta hortik kanpora hartzak neguan moduan hibernatzen emoten jok denboria, noiz bueltatuko berriz Durangoko ferixia.

Bajaok gainera, sistema honetatik kanpo ospatzen dan ferixa alternatibo bat. Egun eta leku berdinetan. Durangon ospatzen dok, gaztetzian eta Durangoko Azoka-Ez Komertziala moduan dok ezaguna. Bertan salerosketa arau horretatik kanpoko lanak dagozik euskuragarri.

Aukera asko jaozik aste honetan literaturaz gozatzeko. Guk eskolan gai honen inguruko eztabaidak be izaten jittuau. Ze pentsatzen jak hiri sistema hau, Egoitz?

Goguan hartzeko

**Euskara, bestela ez gara.  
Euskal atsotitza.**

Ieupala pin pan pun!

Ikasketak oso ondo... Azkenengo lanian 8 bat etara najuan, hi.

Euskararen Eguna dala eta Pako Aristik argitaratutako artikulu batek piztu jostak interesea.

Kontatzen jok Naparruako amama baten historia. Zela etxequak emakume hori ezagutu juen beti espainolez berbetan eta zahartu eta burua galdu zebanian hasi ei zuan derrepente euskeraz. "Amona gaixoa! Zer ikara, samin, izu eta mehatxu jasan ote zituen umetatik zekien hizkuntza hura bere garunean baztertzeke (...) !" galdeetzen jok Aristik. Amaieran hau jiñok: "Euskararen egunak ez luke festa eta ospakizun eguna izan behar, bere eboluzioa zapuztu zaion hizkuntzak, eta horren ondorioz etorkizuna oraindik argitu ez duenak ez baitauka ezer ospatzeko. Euskararen egunak euskara ahotik kendu zieten guztien errekonozimendu eta omenaldi eguna behar luke, kendu zigutena berriro ezarriko digun estrategia eraginkor baten abiapuntua. Hori gutxienez. Hortik beherakoa barre egitea da, eta barre egiten digutenei txalo jotzea".

Aurten be Naparruako amama horren milaka loiba euskaldun batu gaittuk Anbotopera. Oin 75 urte bonbak jetuazten zerutik eta oin euskerazko hamai-ka liburu, disko eta sorkuntza. Badok zeozer. Gainera, zeozer gehixago es-

kaintzen jok oin Durangok, Ahotsenean, Irudienean... Aurten be harrittuta geratu nok han ezagutu dotenakin. Urte guztia jakat oin horrekin gozatzeko.

***"Euskal literatura abenduko lelenengo astian bizi dok, hortik kanpora hartzak neguan moduan, hibernatzen."***

Eneko Beretxinaga

***"Oin 75 urte bonbak jetuazten zerutik. Oin euskarazko liburu eta diskuak trumilka. Badok zeozer."***

Unai Txurruka



## GUTUNAK

**Egin dezagun bidea**

**A**ro politiko berriak Euskal Herria argitu du. Hamarkadetan luzatu den gatazka politikoari irtenbide justua aurkitzeko eginahalean bat egin dute nazioarteko eragile politiko, sindikal eta hainbat erakundek. Ahalegin horren emaitzak begibistan daude. Ukaezina da bidea egiten dihardugula gure herrian benetako bake eta demokrazia egoera batera heltzeko.

Egiteko asko daukagu eta gatazkaren konponbide prozesuan arretaz begiratu behar zaie gatazkaren sorrerako arrazoiei eta gatazkaren ondorioei. Horrek, besteak beste, euskal preso politikoen egoera bideratzera garamatza.

Agenda politikoa dago presten egoera. Gure aldetik argi dugu gerra egoeraralko diseinatutako espetxe politika konponbidearen gakoetara ekarri behar dela. Jarraitu ez dezan oinarrizko eskubideak urratzen.

Ezarritako zigorrak beteta izan arren espetxean mantentzen dituzte preso asko. Gaur gaurkoz, giltzapean jarraitzen dute gaixotasun larriak dituztenak eta sakabanaketak istripuak eta sufrimendua eragiten jarraitzen du. Sorraluzen, Peio eta Lurdes egoera horretan daude eta Sebas ere bai. Eurekin batera, euren senide eta lagunak.

Egoera larri honi amaiera emateko, Egin dezagun bidea! guztion artean. Horretarako bi hitzordu garrantzitsu izango ditugu datozen asteetan:

- Abenduaren 30ean ekitaldi berezia Herriko Antzokian.
- Urtarrilaren 7an Bilbon inoizko manifestaziorik handiena.

**Iraultz Arluziaga**  
**Soraluzeko Amnistiaren**  
**Aldeko Mugimenduaren izenean**

# © Pil-pilean

**Argitaratzailea:** Pil-pilean Kultura Elkartea. Errabal kalea 15- 1., PK 27 - 20590 Sorraluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04 **e-maila:** aldizkaria@pilpilean.com **Erredakzioa:** Leire Iturbe eta Miren Narbaiza **Erredakzio batzordea:** A. Unamuno, E. Unamuno eta A. Madrid, L. Iturbe eta M. Narbaiza **Publizitatea:** Ane Larreategi **Logotipoa:** Pablo Galarraga eta Silvio Vaz **Diseinua:** Silvio Vaz **Maketazioa:** Iñigo Uribetxebarria **Inprimategia:** Gertu Koop. **Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale **I.Z.K.a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil-pilean Kultura Elkarreak ez du bere gain hartzen aldizkari esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA**  
Hizkuntza Politikarako Saiburuordetza



SORALUZeko  
UDALA



GIPUZKOAKO FORU  
ALDUNDIA

## bittartetik



Mikel Leunda  
Hobea bai, baina...

**E**uskararen egoerari begirata, argi-ilunak ikusten ditugu gure herrian. 25-30 urteko ikuspuntuan bistan da aurrera egin duela euskarak. Argi-ilunak tarteko, ordukoa baino hobea da gure hizkuntzaren gaurko egoera. Egunkaria eta aldizkariak irakur ditzakegu euskaraz, telebista eta irratiak ikus eta entzun ditzakegu euskaraz. Herri administrazioan ere badu presentzia euskarak. Euskara ikasi nahi duten helduek eskura daukate euskara ikasteko aukera. Euskarak inoiz izan ez duen neurriko presentzia du liburutegintzan, CD-ROM eta DVDetan. Gidatzeko baimena euskaraz atera daiteke. Jaiotza, ezkontza eta heriotzak euskaraz inskriba daitezke herriko erregistroan, guraso gehienen gogoia da euren seme-alabak ikasketak euskaraz egitea, eta gogo hori bete dezakete eta asebetetzen dute.

Ikasketak euskaraz egiten dituzten ikasleotariko askok, hala ere, ikasgelatik jolastokira pasatzen direnean, euskara osorik edo partez alboratu eta gaztelaniaz egiten dute jolas. Duela 25 urte gutxi ziren, oso gutxi, ikasketak euskaraz egiten zituztenak; orduan, ordea, euskal hiztun izanik ikasketak euskaraz egiten zituzten askok ikasgelatik jolastokira pasatzen zirenean gaztelania utzi eta euskaraz egiten zuten jolas.

## Gotzon Elizburu, jazarpen poliziala salatu duen herritarra.

Gotzon Elizburuk eta beste hiru gazte independentistek azken hilabeteetan poliziaren alde tik mehatxuak, jipoiak eta jarraipenak jasan dituztela salatu dute prentsaurrean. Elizburuk kamardun auto bat izan omen du gau eta egun etxeko atarian eta autoa hartzean atzetik jarraitu izan diote auto batek baino gehiagok.

### Jazarpen polizialakin presiño haundixa sentidu dozu?

Ingurutik publikoki salatzerantz animatu gintuen, baina bildurra be bagenkan, salatu eta gero, okerrera badoia, zer? Neri presino psikologikua egin doste. Egunero, atarixan auto bat aparkauta egotia kamara bat barruan daukala, edo herriko poligonuan sartu eta kotxe bi zure atzera agertzia, nunahira zoziazela atzetik daukazuzela sentitzia... agobixo haundixa da. Azkenian, "zure gainian gare" esaten dabiz.

### Zegaittik gaztien gaineko presino mota hau?

Gazterixia anulatzia nahi dabe. Zeozer balego, etorri eta atxilotuta eruango nindukie. Eurak hor darella igartzia nahi dabe.

### Zuk zeuk, zela daroiazu?

Gabian lo egitteko arazorik ez dot euki eta horrek asko lagundu dosta. Gazte ikuspuntutik sistema anker hau aldatzeko gai garala sinisten dot eta Euskal Herriko independentzia lortzian alde lana egittia ez da delitu. Kontzientzia hori eukitziak muturreko egoera gaintzen laguntzen dau. Ingurukuen babesa ezinbestekua da.

((ENTZUTEKUAK))



### Salaketia eginda herritarren aldetik ze erantzun somatu dozu?

Jazarpenak publikoki salatzea ezkutuan ezer ez daukagula esateko modua be bada. Holako bizipenak benetan sortzen daben ezinttasuna eta ondoeza ulertzeko gertu tokatu bihar dira. Babes haundixa jaso dot bueltan.

### Egoera politiko barririk lagunduko dau hau dana gaintitzen?

Konfrontazio armatu bariko sasoi politiko barri honek bistan lagatzen dau holako jarrera polizialak ez dirala onargarriak. Herrittarrak daukagu etorkizun giltza eta bide horretan lana egitteko apustu politikua oso sendua da. Politikoki askatasunez jarduteko indar polizialak baztertzea ezinbestekua dala uste dot. Hori gizarte osuak bat egin eta ahobatez eskatuta lortuko dogu.

### Jazarpenak sufritzen dabendako ze mezu?

Jasaten dabizen hori publikoki salatzeke esango notseke eta epaitegixetan be bai.

*Jazarpenakin "zure gainian gare" esaten dabiz*

**SAN ANDRES**  
ITURGINTZA

Iturgintza, gasa, eta berogailuak sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea T. 943 75 16 46

**H.NOS. BENITO ANAIAK**

Etxeko eta Sukaldeko Altzariak  
Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

T. eta F. 943 75 20 47  
Santa Ana 26, 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

## Kiroldegiko defizita murrizteko hainbait neurri

**H**uart Arluziaga alkateak, Mikel Argaratek eta Maria Gallastegi kirol teknikariak kiroldegiko abonatuuekin egindako bileran kiroldegiak udalari eragiten dion defizita 60.000 eurotan murriztea proposatu zuten. Kiroldegiak urte osoan daukan erabilpena aztertu ostean honako neurriak aurkeztu dituzte: batetik kuotei dagokio-

nez abonuen prezioak %12an altxatzea, baina ikastaroen prezioa bere horretan lagata. Abonatuak ez direnei berriz, ikastaroen prezioak 40 eurotara igotzea. Bestetik igerilekuko ordutegia murriztea, 12:00etatik 15:00etara itxita. Egunero ordu erdi lehenago ixtea, hau da, 20:30ean ixtea, 21:00etan beharrean. Zapatu arratsaldetan kiroldegia itxita logoke.

### Langileei eta enpresari eskerrak

Udaleko ordezkariak eskerrak eman nahi izan zizkieten langilegoari eta kiroldegiko enpresari. Lehengoari, "doikuntzen ondorioz egin behar izan diren murrizketak murrizketa, hitzaurren berria aplikatzeari uko egin eta beste bi urtetarako hitzaurren zaharra + KPIa onartzeko konpromisoa erakutsi dutelako".

Kiroldegiko enpresari berriz, "hasieratik udalaren egoera ekonomikoaren larritasuna ulertu eta zerbitzua mantentzeko jarrera erakutsi duelako".



Udaleko ordezkariak eta abonatuak bileran.

### Omenaldi beroa jubilatuetan

Azaroaren 26an Ilario Iturbe (91 urte) eta Heraklia Maiztegi (92 urte) omenatzeko egindako bazkarian ehun lagun baino gehiago batu ziren Itxaropena Jubilatuen Elkartearen. Sari eta lore sorta bana jaso zituzten bi omenduek.



Iturria: Nerea Isasti

### Kontsumo taldea Arizaga baserrira

Bertako produktuak kontsumitu edo ekoiztu nahi dituzten herritarrak Arizaga baserrian batuko dira domeka honetan, abenduak 11, bertako baratzak ikusi eta egitasmoa martxan jartzeko. Goizeko 10:30ean batuko dira Estazio kalean.

### Berbalaguna izateko izen ematea zabalik

Berbalagun egitasmoa indartzeko asmotan prentsurrekoa eskaini zuten abenduaren 2an AEKK, Pil-pilean Euskara Elkarteak eta Berbalagun taldeak. Astean behin, ordubetz, hiruzpalau lagun euskara praktikatzeko elkartzen dira. Egitasmoa batu nahi duenak abenduaren 23a baino lehen egin beharko du. Horretarako euskara@pilpilean.com helbidera idatzi, 943 75 13 04 telefonora deitu edota AEK edo Udaleko Euskara zerbitzura jo dezake. Izen ematea doakoa da.



### Zorionak Josefa, 100 urte!

1911ko abenduaren 7an jaio zen Josefa Bastarrika eta mende oso bateko bizitza ospatzeko omenaldia jaso zuen eguaztenean herritarren eskutik. Lagun izan zituen senideak, egoitzako eta Itxaropena Jubilatueko lagunak eta udaleko ordezkariak.

Besarkada beroez gain, lore sorta bana jaso zuen bakoitzarengandik. Bejoindezula Josefa!





**MAPFRE**

**SZ SORALUZE ZERBITZUAK S.L.**

---

**Juan Luis Ibarzabal - Ainhoa Ibarzabal**

Gabolatz, 5-B Behea  
20.590 Saraluze (Gipuzkoa)  
e-mail: jibarza@infonegocio.com

Tlf.: 943 75 16 58 - 943 75 30 12  
Mugikorra: 649 49 79 59 - 649 75 90 78  
FAX: 943 75 16 10



**MENDIZABAL**  
okindegia

Kalebarren 10  
T. 943 75 20 91

Baltegieta 6  
T. 943 75 13 99

**SORALUZE**

### Peatonalizazioak ordutegi berria

Udaltzainburuak jakinarazi du peatonalizazioa bermatzeko erabiltzen diren piboteak datorren astelehenetik aurrera ordutegi berria izango dutela, zapatuetan izan ezik. Kalea eguerdiko 15:00etan itxiko da ibilgailuentzat. Zapatuetan, 13:00etan ixten jarraituko dute. Bestalde, autobus zerbitzuen ordutegi osatua eskuratu nahi duenak udaletxera edo udaltzaingotara jo beharko du.

### Herriko gazte batek jazarpen polizialak salatu ditu

Gotzon Elizburuk eta beste hainbat gazte independentistek azken hilabeteetan poliziaren aldetik jazarpenak izan dituztela salatu zuten aurreko astean prentsaurrean. Gotzonek polizia autobat kanpoan izan duela salatu zuen eta beste gazteek mehatxuak eta jipoiak jasari dituztela ere eman zuten jakitera. Prentsaurrean Gernikako akordioak sinatzaileen babesa izan zuten gazteek.



Bideo osoa:  [P.com](#)

### KZguneko abenduko ordutegia

Abenduan zehar herriko internet gunea astelehenetik barixakura goizeko 9:00etatik 13:00ra bitartean egongo da zabalik. Doaneko antibirus programak instalatzeko azalpenak eskaintzeaz gain, beste hainbat ikastaro egin daitezke bertan; merkataritza elektronikoa edo Metaposta zerbitzua esaterako. IT txartela eskuratzeko azterketak ere egiteko aukera dago bertan. Informazio gehiago: 943 753045 edo tutor.soraluze@kzguna.net (Aitor).

## Euskaldunon gogoeta eta kantu bazkaria 17an

**P**il-pilean Euskara Elkarteak 15. urteurrena betetzeko atarian dagoen honetan norabide berriari ekin eta Euskara elkartetik euskaldunon elkarte izatera salto egin nahi du. Horretarako "Batu sutondora jardunaldiak" antolatu ditu abenduaren 17rako. Jardunaldietara hizkuntzarekiko interesa duten bazkide zein herritar denak gonbidatu nahi ditu elkarteak, iritziak elkarbanatu eta euskaldunon elkartearen etapa berrian eman beharreko urratsak denon artean adosteko. Besteak beste, euskalduntasuna landuko dute bertarautakoek, herrian "euskaldunon mugimendua" nola dagoen hausnartzeaz gain. Patxadaz, elkar aberrastuz, gozatuz... egingo dute hausnarketa. Jardunaldiari mahaiaren inguruan emango diote amaiera, kantuan.

### Batu sutondora jardunaldiak:

10:30ean "Pil-pilean Euskara elkartetik euskaldunon elkarte izatera" GOGOETA berbetagai.

12:15ean HITZALDIA hizkuntza ekologiaz

13:00etan Amaierako agurra

13:15ean POTEOA herrian zehar

14:30ean Kantu bazkaria Allegro elkartearen. Ostean kantu-saio berezia herriko musikari eta kantariak lagunduta.


**Menua:** Txurrukan prestatutako arrain zopa, kroketak, legatz frijitua, amandongilak, postrea eta kafea.

**Prezioa:** 20 euro.

Ordainketa abenduaren 13a baino lehen kontu hauetako batean sartu:

**Euskadiko kutxa:** 13035 0004 90 0040015550 **Kutxa:** 2101 0062 13 0123185746.

**Kontzeptua:** Izen-abizenak.



Jardunaldien berri emateko eskuorria.

## Maisuen etxeak errendatzeko tramiteak hastear

**U**dalak tramiteak hasi ditu alokairu sozialeko etxebizitzak esleitzeko. Datozen eguntan jakinaraziko dira apuntatzeko

data zehatzak zeintzuk izango diren. Ordurako udalak prest izango ditu izena emateko bete beharreko inprimakiak.



# Berbalagunen esperientzia

Hizkuntza bat herdoiltzera ez heltzeko osagai sekretua berba bera da. Duela hiru urte, Pil-Pilean, AEK eta Soralezko Udalak Berbalagun egitasmoa ipini zuten martxan. Modu informalean, euskaltegiatiko arbeletatik urrun, euskeraz egiteko guneak sortzea da Berbalagunaren helburua, euskararen erabilera sustatzeko.

Michaela Desert



Berarentzat Berbalaguna ahozkoa lantzeko tresna da eta euskalkia ikasten joateko bidea.

## Zergatik animatu zinen Berbalagunera?

Atzerritarra izanik hitz egitea niretzat beti izan da besteentzat baino zailagoa. Normalean ez dut asko hitz egiten eta gehiago praktikatzeko beharra nuen. Nik herritarrekin hitz egin nahi nuen. Izan ere, ikasi nuen euskara urte batzuetan zehar, batua ulertzera arte. Baina ez hemengo jendea!

**“O so jende gutxi egiten du lehen hitza euskeraz”**

## Zenbat denbora da Euskal Herrira etorri zinela?

Hamalau urte. Lehenengo gaztelaniaz ikasi nuen, lanerako. Baina logikoena alderantziz egitea izango zen. Jendeak orokorrean garrantzia haundiagoa ematen dio gaztelaniaz ikasteari. Danak esaten zidaten: “Ikastazu lehenago erderaz”... Euskaltegia agobio bat izan zen, ez nekien ezer, ez nuen ezer ulertzen. Beraz geratzen nintzen guztiz frustratuta, beti tontoa bezala sentitzen nintzen.

## Eta nundik atera zenuen aurrera egiteko indarra?

Ez da arraroa herrialde batean zaudela bertako hizkuntza ikastea. Arraroa dena da hemengo jende euskaldunak euskeraz ez hitz egitea.

## Berbalagunak segurtasuna ematen dizu euskeraz berba egiteko?

Asko ikasten da! Errezagoa da hitzak aurkitzea. Normalean astero geratzen gara, ordu beterako da baino luzatu egiten gara gehienetan. Esperientzia oso interesgarria izaten ari da.

## Lortzen duzu herrian euskeraz egitea?

Harrigarria da. Batzutan ikusten ditut bi ezagun, biek normalean euskeraz egiten dut, baina eurak, euren artean, gaztelaniaz! Eta heltzen ikusten nauteanean euskarara aldatzen dute! Lehen ez zegoen hizkuntza kontzientziarik. Beti erderaz egiten zuten eta hori aldatzea oso zaila da. Baina nik dut inpresioa gero eta gehiago egiten dela. Herri txikietan behintzat.

## Euskaldun askok behar dugu jarrera aldaketa

Garrantzitsuena da euskara etxean ikasi dutenek beti erabiltzea. Eta euskaldun askori lotsa ematen die, kanpora joan eta erderaz, “beharbada ez du jakingo eta”. Baina saiatu lehenengo euskeraz! Jende oso gutxi egiten du lehen berba euskeraz.

## Animatu ezazu jendea Berbalagunera!

Berbalagunekin hasi nintzenez oraindik ez nuen ezer ulertzen! Edo oso gutxi... Eta hori bertan ikasi nuen. Eta orain nahiko ondo ulertzen dut herrian. Gakoa berba egitea da.

Inor ez da jaxotzen jakinda eta dakigunok erakusten badugu

Gehiago izango gara dakigunak!





### Zergatik egin zinen Berbalagun?

Euskaltegian lau urtez ibili nintzen, baina beti izan naiz oso ixila eta hitz egiteko ez neukan erreztasunik. Plazentziara lanera etorri nintzenean, pixkat askatu nintzen baina oinarrizko elkarrizketak bakarrik eukitzen nituen.

### Euskaltegitik kanpora zer dago?

Errealitatea beste bat da. Zuk euskaltegian ikasitako gero ez baduzu erabiltzen, ahaztu egiten da. Gero bebai, hemengo euskalkixa ikasteko balio dau Berbalagunak. Gure taldian danetik dao, euskalkia dakitenek batua ikasi nahi dabe, eta besteok euskalkixa.

### Zer eman dizu Berbalagunak?

Lotsa kendu eta segurtasuna lortu dot. Lagunak egin dittut eta elkar ikusten dogunean beti euskeraz egiten dugu! Lehen hanka ez sartzeko ixilik geratzen nintzan. Orain ulertzen ez dudanean galdetu egiten dut. Nere buruaz harro nago, gero eta hobeto espresatzen naiz eta gustatzen zait nere burua euskeraz entzusia!

### Dendaria izanda, zelako esperientzia izan duzu lanean?

Beti erderaz egin izan didate. Nik euskeraz egitean harritu egiten dira. Hurrengo eguna heldu eta berriro



Pili Espiga

Berbalaguna 2008tik. Berarentzat oso positiboa izaten ari da asteroko hitzordua, erreztasuna hartu berba egiterakoan.

erderaz. Eta jende euskaldunaz ari naiz, e? Euskaldunek ez badute erabiltzen, ze esperantza dugu?

**“Gustatzen zait neure burua euskeraz entzutea!”**

### Berbalagunak euskara akademikoa kalera egokitzen lagundu al dizu?

Euskaltegian pasatzen da perfektu hitz egin nahi duzula, zuzen. Egunerokoan errezagoa da, askoz sinpleagoa da. Berbalaguna primerakoa da euskeraz berba egiteko ohitura eta erreztasuna hartzeko. Maitatzen badozu pixkat hizkuntzia eta interes minimo bat badakazu, ez duzu gehiago behar.



**Euskara praktikatzeko, hobetzeko, berreskuratzeke, gozatzeko!**

### Ze helburukin sortu zan Berbalaguna?

Euskerian erabilia sustatzeko mintzapraktikarako sortutako erramintta da. Maila hobetu nahi dabenari euskeraz jarduteko aukeria eskainiz eta euskeraz egitera ohituta darenak lagunduta.

### Zegaittik da garrantzitsua berbetan segurtasuna lortzea?

Euskara jakittiakin bakarrik ez goiaz inora erabiltzerako orduan oztokuak baino ez badittugu. Hori dala ta, euskeraz lasai eta inungo lotsa barik egittia eginaz ikasten da. Segurtasuna lortuaz euskeraz gozateraino.

**“Berbalagunekin euskeraz gozaten ikasten da”**

### Izan be, zein da euskaltegitik kanporako errealitatea?

Lotsak, ohitura kontuak eta beste hamaika arrazoi tarteko geletatik kanpora zailtasunak baino ez dittugu topatzen euskeraz jarduteko.

### Holako ekimenak herrixa euskalduntzen laguntzen dabe?

Euskera naturaltasunez erabiltzen laguntzen dau. Elkar ezagutzeko aukera ederra da gainera, bata bestigandik ikasteko. Azken batian, ekimen honekin euskeraz gozaten ikasten da.

Maite Kintanilla



Berbalaguneko dinamizatzailea.

# ZER IRIZTEN DOTSAZU?

J.A. Artzeren esanak oso egunean daude oraindik. Euskaltegiak ikaslez beteta daude, eta belaunaldi gazteenak ere jakin badakite euskeraz. Ordea, kalean protagonismo mugatua du euskerak. Erabilpenean dago arazo haundiena eta ikasleak zein euskaldun zaharrak, elkarrekin berba egitean gakoa. Horretan dihardute hiru urtez hitz eta pitz, Berbalagunak.

## Zergatik da garrantzitsua euskeraz ikasteaz gain, hizkuntza erabiltzea?

ARKAITZ ARANA



**E**rabiltzen danian entzun egitten da eta ondorioz existitu egitten da. Benetako aberastasuna kaleko euskeran dago, euskaltegixetan baino gehixago. Jarrera falta jaku euskaldunoi eta errua geuria da lelengo, kalian entzun ezian, ez dala bizi emoten dabelako.

DANIEL FULGENCIO



**E**saterako nik, ulertu bai, baina erabili bapez. Erabiltziagarrantzitsuada, bate-tik norberak dakixana mantentzeko, bestetik hizkuntzia bera galdu ez dein. Askotan, jakin arren errez joten dogu gaztelaniara. Inportantia da euskaldunak euskeraz egittia eta ulertzen ez badot gal-detuko dotsut nik!

EDURNE ORBEA



**B**este hizkuntza danen modura derrigorra da erabiltzia, berbalagun, bar-netegi edo euskaltegixetan, bildur bare egittia da garrantzitsua. Herrixan oso rela-jauta gare, jende askok daki baina plazan ez da asko entzuten, dakigunon artian bez. Pilak ipintzeko sasoi da.

M<sup>a</sup> ISABEL MARIN



**H**izkuntzekin daukagun Harazua ridikuluari dotsagun beldurra da, baina segurtasuna lortzeko modu bakarra hori da. Aurreiritzi-xak laga eta euskerian alde gehixago egin biharko genduke. Gizaterixan ondaria da, danona eta danondako.

Eman zure iritzia sarean



**Ion Murgizu Pinturak**  
MARGOKETA OROKORREAN  
Empapelatuak  
Estukoak  
Fatxadak  
Eskilarak eta patioak  
Pintura industrialak  
T. 943 75 1324 M. 652 777 030  
Ezoziko etorbidea 24, 2 Behea

 **PASCUAL CHURRUGA, S.A.**  
Hotzian eta beruan  
jotako tornilluak  
Errekalde 21  
20590 SORALUZE  
T. 943 75 00 06  
T. 943 75 16 00  
F. 943 75 24 61

**GILA TABERNA**  
GOIZEKO 6:30 ETATIK AURRERA ZABALIK  
GOSARIAK  
ETA PINTXO  
GOXO GOXUAK  
ERRABAL KALEA 15 T. 943 75 18 34

 **Altzairuen fabrikazioa:**  
• Bainugelak  
• Sukaldeak  
• Horma-armairuak  
• Barruko altzairuak  
Disceinua eta Sormena  
Poligono Amillaga, n<sup>o</sup> 5  
Tif.: 943 76 99 85  
20570 BERGARA (Gipuzkoa)  
Fax.: 943 76 05 17

### Fernando Oregi Kontrargiren Rallyko txapeldun

Epaimahaiaren iritziz azaroko rally digitalako onena Oregi izan da. Argazkiek sei gai jorratu behar zituzten eta Oregik aurkeztutakoaren artean "txikittea" gaiak jaso ditu puntu gehien. Bigarren saria Carlos de Cosentzat izan dira eta hirugarren saria Idoia Zearreta zumaiarrentzat izan da. Herriko saria Mikel Valerok jaso du. Txapelketako maila ona azpimarratu dute. Sari banaketa datorren abenduaren 17an izango da kiroldegiko erakustaretoan.



Iturria: Ferman Oregi

#### Kultur ekitaldien agenda

##### Bihar, abenduak 10:

**ANTZERKIA**  
"Los perfectos" Un mundo sin limites.  
20:00etan, Zinean

Ant: Soraluzeko Udala

##### Abenduak 21, eguaztena:

**MUSIKA ESKOLAREN GABONETAKO KONTZERTUA**  
Arratsaldeko 19:00etan, Zinean.

Ant: Soraluzeko Musika Eskola

##### Abenduak 21, eguaztena:

**ABESBATZAREN GABONETAKO KONTZERTUA**  
Arratsaldeko 20:00etan, Zinean.

Ant: Ezoizko Ama Abesbatza

## Datozen hilabeteetan hamaika ekitaldi Gaztetxean

Gaztetxeak prest du aurtengo "Hamabostaldi Kulturala". Erreka ondoko eraikin autogestionatuan abenduaren 12an hasi eta urtarrilaren 15era arte izango dira ekimenak. Aurkeztutako

eskaintza askotariko eta zabalak herriko haur, gazte zein heldu batzea du helburu. Herritar denak daude gonbidatuta beraz, ekitaldietan parte hartzera

#### ABENDUA

- 12- Muma Abu Jamal dokumentalaren proiektzioa.
- 19- Euskal zine zikloa.
- 20- Argentinako Korralitoaz hitzaldia.
- 23- Eskulan tailerra, haurrentzat jolasa.
- 25- Pelikula "hacia rutas salvajes" eta txokolatada.
- 26- Pantxika ta Txnparta (ipuin kontaketa).
- 28- Tertulia. "Gaztetxearen historia. 70. hamarkada".
- 29- Abdominal hipopresibo ikastaroa.
- 30- Tripa festa. Komedore beganoa. Ondoren antzerkia.

#### URTARRILA

- 12- Pelikula emanaldia eta txokolatada.
  - 19- Euskal zine zikloa.
  - 20- Bertso merienda.
  - 23- Gaztetxearen historia. "80. hamarkada".
  - 25- Presoen aldeko manifa Bilbon. Gu ere joango gara!
  - 13- Hip hop kontzertuak.
- Urtarrilaren 2tik 15era argazki erakusketa egongo da.

**Oharra:** Ordu-tegi zehatzak eta behin betiko egitaraua



## Olentzero eta Mari Domingi goizeko 11etarako etorriko dira

Abenduaren 24an Mari Domingi eta Olentzero etorriko dira herrira. Goizeko 11:00etan iritsiko dira eta Plaza Barrian egingo zaie harrera. Handik kalejiran joango dira kiroldegira eta Urrats dantza taldeko gaztetxeonek koreografia berezia egingo dute. Frontoian opariak banatuko dizkiete umeei. Bestalde, bertaritzen direnentzat salda eta txorixo mokadua egingo da.

#### Oilarra txabolaren zaindari

Plaza Barrian ipini diete jada gabonetako bi pertsonaiei etxea. Aur-

ten gainera, oilarra teilatu gainean duela zaindari eta ortu eta guzti.



# Etxebe eta Gallas gomazko paletako lehen mailan

Joseba Etxeberria eta Jon Gallastegik lehen maila eskuratu dute paleta txapelketako finalera heldu eta gero. Finalerdietara aise iritsi da bikote soraluzetarra, lehen fasea taldeko buru zirela amaitu zuten. Azken fasean beste hainbeste. Alde Zaharra bikote donostiarraren



Gallas jokoan.

Iturria: GEPE

aurka jokatutako bi partiduetan garaile izan dira. Azaroaren 11n jokatu zuten lehena, 14-25 plaentxiarren alde. Elgoibarko pilotalekuan jokatu zuten bigarrena, 25-11 herritarrak berriz irabazle. Azaroaren 25ean jokatu zuten finala eta ordurako, bi taldeek ziurtatuta zuten lehen mailara igotzea. Zarautz izan zuten aurkari, eta oraingoan, 25-11 galdu zuten.

### 3. mailatik lehen mailara bi urtean

Duela bi urte hasi ziren Etxebe eta Gallastegi bikote paletetan jokatzen. Joseba Gallastegik adierazi moduan, "helburua lehen maila zen eta pozik gaudete, bi urtean helburua bete dugulako. Denboraldi bakoitzean egin dugu gora!". Datorren urteko irailetik aurrera, lehen mailan lehiatuko da beraz bikote soraluzetarra.

## Bi herritar Donostiako maratoian

Azaroaren 27an Donostiako 34. maratoia jokatu zen eta bertan izan ziren Iñaki Ruiz eta Iñaki Arrondo plaentxiatarrak. Ruiz 192.

sailkatu zen, 02:53:47 segundutan helmugaratuta. Arrondo 1549.a izan zen, 03:39:08 segunduko denbora eginda.

## Fit-boxing eskolak kiroldegian

Arane kiroldegia Fit-boxing eskolak eskainiz itxiko du 2011. urteko egutegia. Eskolok astelehen eta eguaztenetan izango dira kiroldegian bertan eta ize-na eman nahi duenak bertara jo

beharko du edo 943 75 24 66 telefonora deitu. Maia Gallastegik abonatuari jakinarazi nahi die abenduaren 12tik 31ra bitartean tramitatuko dituztela abonatuaren bajak eta izen emateko eskaerak.

## EMAITZAK

### PELOTA

Retegi Bi – Laskurain	22
Xala – Zabaleta	21
Mtz de Irujo – Laskurain	22
Xala – Barriola	13

### FUTBOLA

Sora (Erreg. Pref.) – Aretxabaleta	4-3
Ikasberri K.E. – Sora (Erreg.)	2-0
Sora (Jub.) – Eibartarrak	7-2
(Sora Kad.) – Bergara	2-0
Antzuola K.E. – Sora (BHI mutilak)	9-3
Bergara – Sora (BHI neskek)	3-2
Sora (Erreg. Pref.) – Ilintxa	1-1
Sora (Erreg.) – Eibartarrak B	0-2
Eibartarrak – Sora (Jub.)	2-3
Sora (Kad.) – Elgoibar	1-12
Antzuola – Sora (BHI mutilak)	9-3
Sora (BHI mutilak) – Antigua Luberrri	5-1
Sora (BHI neskek) – Urki	0-7

## AGENDA

### PELOTA

**Domeka 11, 17:00etan Bilbon**  
Titin III – Laskurain  
Berasaluz VIII – Apraiz

### FUTBOLA

**Zapatua 10, 16:00etan Unben**  
Urki – Sora (Erreg.)

**Zapatua 10. 16:30ean**  
**Azkoagainen (Oñati)**  
Aloña Mendi K.E. – Sora (Jub.)

Sora kadeteak deskantsua  
Sora (BHI neskek) deskantsua

**Belarrak**  
**Loradenda**  
eta  
**belardenda**  
T. 943 75 30 11

**Harategia**  
Enkarguz  
eskatutako janaria ere  
prestatzen dugu  
**HARATEGIA**  
Kalebarren 3. Soraluze  
Tel. 943 75 12 49

# ZORION AGURRAK



**Unai Gabilondo**  
Abenduan 5ian 4 urte!  
Zorionak maitia eta  
muxu pila etxeko danon  
partez!



**Iñigo Astigarraga**  
Abenduan 11n urtebete!  
Zorionak gure baserritar  
txikixari eta 1000 patxo  
etxeko guztion partez!



**Jone Urresti**  
Abenduan 9xan urtebete!  
Muxu pila aitaxo, amatxo  
eta etxeko danon partez!



**Miren Osinaga**  
Abenduan 11n 4 urte!  
Zorionak poxpolin!  
Muxu haundi bat familixan  
partez!!



**Zorionak Flabia eta Carlos!**  
Abenduan 11n eta 26xan  
12 eta 16 urte betetzen dozuezelako,  
muxu pila familixakuen partez!



**Miren Mendia Altuna**  
Abenduan 10ian 2 urte!  
Zorionak etxeko sorgintxuari,  
aita, ama eta Noran partez!



**Aurkene Lopez de Calle**  
Abenduan 8xan 8 urte!  
Zorionak poxpolin eta  
muxu haundi bat etxekuen  
partez!



**Aimar Perez**  
Abenduan 20xan 7 urte!  
Zorionak etxeko danon  
partetik, baina bereziki  
Mirarin partez!



**Ketxu Mari de Porrotiren debuta!** Azaruan 19xan  
60 urte! Zorionak! Zoragarri  
pasatu genduan! Datorren  
urtian Ventasen!



**Lander Ruiz de Luzuriaga**  
Abenduan 13an 7 urte!  
Zorionak potxolino, asko maitte zaittugu!  
Amatxo, aitaxo eta Eneko!  
Muxu haundi bat guztion partez.

## hildakoak

MARIA PILAR ODRIUZOLA ERRASTI  
ANDRES MORO EGUREN  
BLAS GARCIA CORRAL



## LEHIAKETA

► **Zein ageri da argazki honetan?**

► **Saria:** G puntua bertso txapelketaren finala ikusteko bi sarrera.



## AURREKO ALEKO ERANTZUNA

► **Irabazlea: Domentx Uzin**

► **Ion Mendizabal**, autobus gidarixa zan aurreko aleko argazkixan agertzen zan herritarra.



Oharra: Lehiaketako irabazlia aukeratzeko zozketia alia etara eta hurrengo barixaku eguerdixan egitten da.

deitu **943 75 13 04** edo e-mail bat bidali ezazu **aldizkaria@pilpilean.com**

# ARGAZKI ZAHARRA



Iturria: Plaentxi Herri Ikastetxea

## SORALUZEEKO AMETSA IKASTOLAKO UMEAK

**1** 968. urtian zabaldu zittuan atiak Soraluzekeo Ametsa Ikastolak eta lelengo urte haretan berrogeita sei umek eman zeben izena, hain zuen, erretratuan agertzen diran honek. Urte batzuk beranduago eskola publikuakin batu eta gaur eguneko, Plaentxi Herri Ikastetxia bihurtu zan. Ezozi Zangitu izan zan ikastolako lelengo irakaslia, oin hiru urte erretiratu zan urte askuan irakasle lanetan jardun ostian.

**Argazkixan:**

**Zutik:** Ezozi Zangitu

**Goitik hasita:**

**Lelengo ilaran:** Imanol Mendizabal, Xabier Leturiondo, Aitor Iñurrieta, Loli Orbea, Aintzane Iñurrieta, Ana Mendikute, Alexander Amor, Jose Leturiondo eta Maria Jesus Iñurrieta.

**Bigarren ilaran:** Jabier Sarasua, Zezilia Asteazarau, Lazaro Trebiño, Ramon Solizgarai, Bakarne Lizarralde, Javier Muguruza †, Anton Uriarte † eta Maite Alberdi.

**Hirugarren ilaran:** Jose Galarraga, Juan Luis Iñarra, Jesus Mari Martino, Loli Guridi, Ana Gallastegui, Patxi Igartua, Koro Zenitagoia, Ane Etxabe eta Luis Jabier Oregi.

**Laugarren ilaran:** Rosa Maria Uribelarrea, Idoia Aldazabal, Nerea Zerrajon, Alberto Zarobe, Arantxita Aranda, Felipe Oregi eta Patricia Iriondo.

**Argazkian falta direnak:** Nerea Unamuno, Oskar Otxoa, Jose Garcia, Iñaki Amuategi, Beatriz Ariaga eta Jose Nuñez.



**ANDRES MORO EGUREN**

2011-11-29

*“Zu joan zara baina zureganako gure maitasuna ez.  
Ez ditugu inoiz ahaztuko zure ilusioa eta bizipoza”.*

Familiak bihotz-bihotzez eskertzen du herri-  
tar denen partetik jasotako laguntasuna.

lehenengiak...

KROKETAK (1) .....	0'30 €
URDAIAZPIKO IBERIKOA.....	12'00 €
FRITO NAHASIAK .....	4'40 €
FOIE ETXEAN EGINA.....	6'50 €
ENTSALADA NAHASIA .....	3'80 €
ARRAIN ZOPA .....	3'50 €
SALDA .....	1'00 €
PIPER BTEAK (1).....	1'50 €

arrainak...

BAKAILUA PIL-PIL ERARA .....	11'00 €
BAKAILUA BIZKAITAR ERARA .....	11'00 €
LEGATZ FRIJITUA .....	7'00 €
LEGATZ SALTSAN ALMEJEKIN .....	11'00 €
TXIPIROIAK TINTAN .....	9'00 €

haragiak...

MINGAINA SALTSAN .....	4'50 €
KARRILLERAK ARDO BELTZETAN .....	9'00 €
TXARRI AZPIZUNA FOIE ETA HIRUGIARRAZ BETETA .....	8'00 €

postreak...

GAZTA TARTA .....	3'00 €
HOJALDRE TARTA .....	3'00 €
SAN MARCOS TARTA .....	3'00 €

## GABONAK DIRELA ETA GURE ESKEINTZA ZABALAGOA EGITEA ERABAKI DUGU

### HAUEK DIRA GABONETAKO PLATER BEREZIAK:

Itsaski nahaskia <i>Salpicón de marisco</i> .....	7'50
Arrain pastela <i>Pastel de pescado</i> .....	3'00
Zapoa americar erara <i>Rape a la americana</i> .....	16'00
Ganba eta onddoz beteriko legatz frijitua <i>Merluza frita rellena de gambas y hongos</i> .....	10'00
Bakailuz beteriko piper gorriak <i>Pimientos rojos rellenos de bacalao</i> .....	1'50

ENKARGUAK EGITEKO

AZKEN EGUNA: Abenduak 20

# TXURRUKA JATETXEA

**TXURITXU**  
Zuekin  
gozatzen

943 75 24 43

Santa Ana kalea 22 behean



 **Lakuesta**  
**Optika**  
Ikusmen arazozen frogak  
eta argibideak  
Parafarmaziako produktuak

Santa Ana, 22 C. behea  
20590 Soraluze  
T. 943 75 30 59



**MGS**  
Mutua General de Seguros

**Loli Nieves García**

Santa Ana, 13 • SORALUZE  
Tel. 943 75 14 57 - 646 522 659  
E-maila: mdnievas@mgs.es  
www.mgs.es



**Soraluzeko  
Kooperatiba  
Elkartea**


**100** URTE  
1910 - 2010

943 75 13 45

**ARMENDIA**  
**JATETXEA**

Ezoz Auzoa 11  
20590 Soraluze  
T. 943 75 10 02

SUKALDARITZA  
TRADIZIONALA



**MARI MAR  
HARATEGIA**

Gurean  
Euskal Herriko  
produktuak!

Tel. 934 75 24 02  
Santa Ana kalea, 4 Soraluze



# “Ziurtagiriak zerbitzu on bat bermatzen du” *Esther Gisasola*



Sosola baserriko Esther Gisolarekin izan gara Q ziurtagiriak nekazalturismoaren funtzionamenduari ekarri dizkion erraztasunez hitz egiten. Euskadin honezkero 273 establezimenduk jaso dute turismo arloko enpresen zerbitzua, zertifikatzen duen Kalitate Turistikoaren Q ziurtagiria. Jardunbide egokirako programan, Kalitate Turistikoarekin Konpromiso Diploma duten 494 establezimendu daude. Bereizkuntzak, formakuntza eta hobekuntzarako konpromisoa, establezimenduen kudeaketan dedikazioa eta zorrotasuna errekonozitzen ditu, kalitatearen hobekuntzarako planen bitartez. Helburu nagusia etengabeko hobekuntza da, bezeroaren zerbitzura.



Gisasolak erdi aroko landetxearen egongela erakutsi digu.

## **Zeintzuk izan ziren sistema honen alde apustua egiteko arrazoiak?**

Egiten dugun lanaren errekonozimendua lortzea, hau da, erakunde ofizial baten baieztatzea. Ezartzen dudana bigarren Q-a da eta, beraz, sisteman sinisten dudala esan nahi du horrek. Buruan daukaguna sistematizatuta edukitzeak lasaitasun haundia eta lanerako erraztasuna ematen du.

## **Zein abantaila ekarri dizkizue Q ziurtagiria edukitzeak?**

Hitzak dioen moduan Q ziurtagiriak kalitatea esan nahi du. Gauza sinpleenetik garrantzitsuenara enpresak dena kontrolatuta duela da, eta horrek bezeroari konfiantza ematen dio. Ziurtagiriak zerbitzu on bat bermatzen du.

## **Ezarpeneren ondorioz nolako hobekuntzak izan dituzue, barne**

## **funtzionamenduari begira? Eta kudeaketa gaitan? Eta azpiegitura kontuetan?**

Etengabeko hobekuntza lortzea eta bezeroak fidelizatzea.

## **Zeintzuk dira bezeroaren asebetetzean zuzenean eragina izan duten hobekuntzak?**

Q markak ematen duen konfidantza edo prestigioa.

## **Zer esango zenieke turismo arloko profesionali Kalitate Turistikoaren Q-aren ezarpenerako animatu daitezen?**

Q-a eukitzea eta profesionala izatea ezinbestekoa da edozein enpresatan. Enpresarioen ahotan eztabaida sortzen da beti, kalitate sistema papeleoa oinarritzen dela uste dute. Nahiko nuke azaldu, papelak direla finean norberaren eguneroko lana errazteko balio dutela.

## **Kalitate Turistikoaren Q-a prozesuak zure erakundearen kokatze lehiakorragoa ahalbidetzen du?**

Nik uste bezeroak Q-aren esanahia gero eta gehiago baloratzen duela horren gaineko gero eta informazio gehiago daukalako.

## **Kalitate Turistikoaren Q-aren kudeaketa prozesuaren barruan landutako eta ezarritako eskumenen artean zeintzuk azpimarratuko zenuzke garrantzitsuen edo erabilgarrien modura?**

Gure lanean etengabeko hobekuntza.

## **Kalitatearen kultura zure erakundearen bultzatzeko nolako aldaketak sartu dituzu edo sartzeko asmoa duzu?**

Bezeroaren asetasun mailan oinarrituko naiz. Umilak izan behar gara eta ezadostasunak daudenean horiek onartzen jakin behar dugu.

**Eusko Jaurlaritzak eta Turismoaren Euskal Agentziak, Basquetourrek, Euskalitekin lankidetzan, behar dituen tresnak eta laguntzak ematen dizkiote enpresaburuari, enpresa lehiakorragoa izan dadin, ondorengo programa hauen bitartez:**

**Jardunbide egokirako programak:** helburua enpresarioen “profesionalizazioa” eta jomuga-konfiantzia sortzea da. Euskadin Kalitate Turistikoarekin Konpromiso Diploma duten 494 establezimendu daude.

**Kalitate Turistikoaren Q-a programa:** bezeroen itxaropenak betetzea eta asebetetzea bermatzen dituen programa. Euskadin 273 establezimenduk jaso dute Kalitate Turistikoaren Q-a bereizgarria.

**EFQM Bikaintasun eredua:** erakundeei kalitatearekin bikaintasun mailaraino igotzea proposatzen dien programa. Eredua honetan parte hartzen diharduten 14 establezimendu daude Euskadin.

**Jarri Kalitate Turistikoaren Q ziurtagiria zure establezimenduan!**

[www.turismoa.euskadi.net](http://www.turismoa.euskadi.net) 94 607 75 86  
[www.euskalit.net](http://www.euskalit.net) 94 404 74 70

